

Helen Hayes aktore estatubatuarra hil egin da

NEW YORK

Helen Hayes aktorea herenegun zendu zen New Yorkeko eritetxe batean 92 urte zituelarik. Estatu Batuetan zinean zein antzerkian, maila goreneko sariak eta ikuslegoaren onarpena jaso zituen urte askotan zehar. 'Antzerkiko Lehen Dama' izena ezarri zioten, alor horretan egin izan zuen lan oparoarengatik. Bihotzekoak jota hil da. Beti izan zen osau oneko emakumea eta urtetan aurrera izanda ere lanean jarraitzen zuen.

Mendearekin batera jaio zen Helen Hayes, aktore goiztiarra izan zen, lehen aldiz taula gainera bost urte zituela igo zen. Bere lanik goraiatuena 1953an egin zuen, 'Victoria Queen' antzezlanean. 1931n lehen pelikula errodatu zuen eta lehen Oscarra irabazi bertan egindako lanarengatik. Ez zen hastapen txarra izan. 1969an George Seatonen filme batekin bigarren Oscar saria eskuratu zuen.

Hala ere, antzerkia izan zuen ogibide, afizio eta maiteen zuena. Bere karreraren bukaeran telebistan ere egin zuen lan Agatha Christie idazleak sortutako Miss Marple amona detektibearen rolean. Lan honekin berriro ere arrakasta izan zuen, 40ko hamarkadan aktore lanari utzi ostean. Orduan, bere senarra zen Charles Mac Arthur produktorearekin Nyack herrira erretiratu zen. 1956an senarra hil zitzaion eta beranduago izan zuen alaba bakarra. Egoera honek eragindako krisia gainditu ostean, poliki-poliki berriro ere antzezpenaren mundura hurbiltzen hasi zen.

John Forden 'Arrowsmith' (1931), Frank Borzageren 'A farewell to arms' (1933), Millian K. Howarden 'Vanessa' (1935) eta Anatole Litvaken 'Anastasia' (1956) filmeetan egin zuen lan, beste askoren artean.

Emakumearen esneaz, fruta zukuz edo arrautzaz baliatzen den artista

Jiri Dokoupil txekoslovakiarraren erakusketa Gasteizen ikusgai

Gasteizko Amarica galerian Jiri Georg Dokoupil artistaren erakusketa inauguratu zuten atzo. Besteak beste, bere lanetan arrautzak, emakumearen esnea, gurpilak edo fruta zukua erabiltzen dituen laguna da txekoslovakiarra, «beti ere arte bilaketa dela eta».

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Dokoupilek 40 urte beteko ditu datorren urtean eta jarduera oparoa izan du arteari ekiten hasi zenetik. Txekoslovakian jaio arren, berehala harremana eduki zuen Kolonia, Frankfurt eta Düsseldorfeko zenbait eskolarekin, adibidez Düsseldorfeko Sigmar Polke-rekin (Joseph Beuysen ikaslea) ikasi zuen.

Eragin artistiko hauek gehi azken urteetan Madril eta New Yorken izandakoak Dokoupilek atzo Gasteizen aurkeztutako obren abiapuntuak dira. Artistak 25 bat pieza jarri ditu ikusgai Gasteizko Amarica aretoan, lan guztiak 1985etik 1993ra bitartean eginak, eta erakusketa hila-betez egongo da.

Atzo egindako aurkezpenaren artistak kandela batek sortarazten duen keari esker jorrotutako koadro handi bat adierazi zuen. Koadroak Conde eta Escamez espainiar bankeroak bi banke-



1985etik aurrera eginiko 25 bat lan jarri ditu ikusgai Dokoupilek. OLALDE

txeren bategitea sinatzen agertzen du. Hau «poetiko» da Dokoupilen ustetan.

Halaber, aipatu koadroa serie luze bati dagokio, txekoslovakiarrak estilo jakin batez lan egin ordez serie bat hartu eta bukatu arte lanean segitzen baitu.

ASKI EZ DITUEN TEKNIKAK Baina bankeroen inguruko lanak kandelaren kea euskarri badu ere, gainontze-koetan baliatutako prozedura are imajinatiboagoa da. Esaterako, pinturan murgildutako gurpilek uzten duten arrastoa edo fruta-

zukuak sortarazten duena «adierazkortasun handiko lanabesa» delakoan dago.

Hala eta guztiz ere, teknika horietan ez da gustura sentitzen. «Horrexegatik bila jarraitzen dut, ikerketari eusten», azaldu zuen artistak.

Edonola ere, Dokoupilek pintura «ohizko erara» dexente egin duela jakinarazi zuten artistarekin batera prentsaurrekoan zeuden teknikariek.

Amarica aretoko arduradunek artista interesgarri honen lanak azaltzearen garrantzia nabarmendu zuten.

Eibarko 16. Antzerki Jardunaldiak

'Pantzart': ihauteetako tragikomedia

EIBAR

Tolosako Agerre Teatroak 'Pantzart' lana taularatuko du gaur Eibarko antzerkialdiaren barruan arratsaldeko 20.30etatik aurrera. Zuberoako eta Nafarroa Behereko antzinako adierazpen parateatralen ildotik sortu da antzezlan hau Maite Agirreren zuzendaritzapean. Vicente Ameztoti pintoreak eszenografia osoa eratu du.

Europako adierazpide parateatral antzinakoenak Zuberoan

eta Nafarroa Beherean daude. Paradak, serenadak, maskaradak, pastoralak, Ihauteetako tragikomediak, xaribariak... Tankera eta eduki desberdinekoak dira teatro antza duten ekintza hauek. Agerre taldeak Ihauteetako tragikomedia tradizional bat aukeratu du antzezlan hau egiteko. XVIII. mendetik hona hiru tragikomediaren testuak baino ez dira ezagutzen eta hauetariko bat dugu 'Pantzart', Agerrek taula gainera ekarri duena.

Testu tradizionala bada ere,

antzezlanak bi alde lotzen ditu. Hau da, alde batetik tradizionala da, nekazaritza giroari, euskal mitologiari eta garaiko estetikari erreferentzia egiten diona baina, beste alde batetik abangoardiaren lerroetan kokatzen da. Vicente Ameztoti eman dio itxura antzezlan honi. Pintore gipuzkoarrak bere pinturan behin eta berriro erabiltzen dituen klabe berak erabili ditu eszenografian: naturako elementuak (bejelalak bereziki) eta gizakiarenak bilztea.

LABURREAN

JORGE GUILLEN

eztabaidagai bere omenaldian

Jorge Guillen poeta espainiarra jaio zela ehun urte betetzen dira aurten. Hori dela eta, Erroman omenaldi bat eratu dute. 27ko belaunaldiko partaide den edo ez den gaiaren inguruan eztabaida gogorra sortu zen Dario Puccini, Angela Bianchini, Mario Luzi eta Antonio Ramosen artean. Azken honen esanetan, Guillenen poesia ondo ulertzeko 27ko belaunalditik banandu behar da. Puccinik, berriz, eta aurrekoarekin kontraesanean, literatur talde honetako idazlerik onena izan zela azaldu zuen.

HITLER eta Stalinen garaiko artea ikusgai

30 eta 40ko hamarkadetan, Alemanian Hitlerren garaian eta Sobiet Batasunean Stalinen garaian, eginiko artea ikusgai jarriko da Moskun eta Berlingen. Erakusketa honetan bilduko diren artelan asko eta asko urteak daramatzate jendeaurrean erakutsi gabe. Sobiet Batasunaren kasuan, Stalinekin zuen arte kontzeptuari erantzuten ez ziotelako, ezkutuan gordeak egon dira hauetariko lan asko. Alemaniaren kasuan, berriz, Hitlerrek babesean hartu zituen hainbat artelan azken urteetan baztertuta egon dira. 'Berlin-Mosku: XX. mendeko metropoliak' izenaz izango du erakusketa interesgarri honek.

ONDARE artistikoa laser bideodiskoetan

UNESCOren ekimenez mundu osoko ondare artistikoa laser bideodisko formato berrian biltzeko asmoa agertu da. Aurten hasi eta hamar urteren buruan, 50 disko osatuko dira. Mundu guztiko ondare artistikoa filmatuko da bideodisko hauetan. Hauek interaktiboak izango dira, hau da, ikusten duenak nahi duen informazio maila aukera dezake, eta imajinak hiru dimentsiotan emango dira. Lehenengo atalak munduko museo nagusiei buruzkoak izango dira. Lehenak 'Le Louvreko oso ordu aberatsak' du izena.



IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22



31 x 15 mm

EGUN BAT 1.040 pta/42l.
ASTEBETE 5.100 pta/208l.
BI ASTE 9.000 pta/360l.

31 x 33 mm

31x33
MODULO

EGUN BAT 2.100 pta/84l
ASTEBETE 10.200 pta/416l
BI ASTE 18.000 pta/720l
HILABETE 25.000 pta/1.010l

31 x 33ko
BI MODULO

EGUN BAT 4.200 pta/168l
ASTEBETE 20.400 pta/832l
BI ASTE 36.000 pta/1.440l
HILABETE 50.000 pta/2.200l